

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

402

AGINDUA, 2023ko urtarrilaren 10ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Tubacex izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa.

2022ko azaroaren 14an, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko erregistroan telematikoki sartu zen Fundación Tubacex izeneko fundazioaren estatutuak aldatzeko eskritura publikoa, zeina 2022ko azaroaren 7an egiletsi baitzen Bilboko Jesús Sánchez Vigil de la Villa notarioaren aurrean, Juan Ignacio Gomeza Villaren ordezkogisa (protokolo-zenbakia: 2.098) aritu zena.

Eskritura publiko horretan sartu zen fundazioaren patronatuko idazkaria den Maider Cuadra Etxebarrena andreak, presidentearen oniritziarekin, 2022ko irailaren 27an egindako ziurtagiria, patronatuak 2022ko irailaren 27an egindako bilerarena. Bilera hartan, erabaki baitzen fundazioaren estatutuen 15. artikulua aldatzea, gehienez bederatzi kide izan daitezen.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman behar du agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako arau hauetan xedatutakoarekin bat etorritik: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedientearekin batera, funtsezkotzat jotzen diren dokumentu eta datu guztiak aurkeztu dira. Horrela, bereziki betetzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan eskatutako betekizunak. Gainera, estatutuetan egindako aldaketak bat datoz aplikatzeakoak diren lege eta erregelamenduetan xedatutakoarekin.

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, Agindu honen datarekin, Fundación Tubacex izeneko fundazioaren estatutueta 15. artikulua aldatzea (gehienez bederatzi kide izan daitezen), Fundazioaren patronatuak erabaki zuen aldaketak egitea, 2022ko irailaren 27an; betiere, 2022ko azaroaren 7an Bilboko Jesús Sánchez Vigil de la Villa notarioaren aurrean, Juan Ignacio Gomeza Villaren ordezkogisa (protokolo-zenbakia: 2.098) aritu zena.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari eta haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 10a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.